

ANTSOAIN
**Emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasunaren aldeko
Antsoaingo plana. Behin betiko onespina**

Antsoaingo Udalak, 2010eko urtarrilaren 27an egin osoko bilkuran, hasiera batean onetsi zuen Emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasunaren aldeko Antsoaingo plana. Erabakia 2010eko 24. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, otsailaren 22an.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325. artikuluari jarraikiz, maiatzaren 31ko 15/2002 Foru Legeak aldatu baitzuen, eta jendaurreko epea inork alegaziorik aurkeztu gabe iraganik, emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasunaren aldeko Antsoaingo plana behin betikoz onetsi eta testu osoa ematen da argitara, behar diren ondorioak izan ditzan.

Antsoainen, 2010eko martxoaren 18an.-Alkatea, Antonio Gila Gila.

**EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO AUKERA-BERDINTASUNAREN ALDEKO
ANTSOAINGO I. PLANA. 2010
KONPROMISOA**

Antsoaingo Udalak 2008. urtean iraunkortasunaren aldeko konpromisoa hartu zuen, sentsibilizazioa eta gaurko gizartean nagusi diren balioen aldaketa lortzeko, pertsonen barnetik, haien portaeraren aldaketak sustatuz, horrek ahalbidetuko baitu etorkizun iraunkorragoa sortzea, alegia, ingurumenaren egoera ona, bideragarritasun ekonomikoa eta gizarte bidezkoa oraingo eta geroko belaunaldientzat.

Gizarte iraunkor batek kontuan hartzen ditu gizakien beharrak eta haien bizi kalitatea eta jaramon egiten dio aukera-berdintasunari, parekotasun, inklusibitate eta biziegokitasun gisa ulertuta. Berdintasun hori bateraezina da, argi eta garbi, "Udalerriko genero egituraren azterketa. 2007-2008" izenburuko diagnostikoan egiaztatu den emakumeen kontrako egiturazko bereizkeriarekin.

Diagnostiko horrek beharrezkotzat jotzen du gure herrian berdintasun plana izatea, emakumeen eta gizonen artean Nafarroa osoan ageri diren desberdintasun nagusiak gurean ere baditugulako. Emaizta horiekin batera, ordea, hortxe ditugu gure udalerraren berezitasunak, beharrak eta egoera sozialak, aukera-berdintasunaren arloko gure lehen jarduketetan lehentasunak markatu izan dizkigutenak.

Emakumeen eta gizonen arteko benetako aukera-berdintasunaren printzipioa bilatu eta lortzea, gainera, funtsezko konpromisoa dute administrazio publiko guztiek, hala tokikoek nola autonomia erkidegokoek, estatukoek eta Europakoek. Beharrezkoa da, bada, genero ikuspegia politika publiko guztiei erantsiko dien estrategia bat, areago, gizarte osoa bultzatuko duena berdintasuna sustatzera.

Horretarako daukagu emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko Antsoaingo I. plan hau. Azken buruan tresna eta bitarteko bat da, bai arduradun politikoei bai teknikariek gure lanean berdintasuna garatzeko erabiliko duguna. Haren bidez elkarlanean aritzen ahal gara, legeek jaso eta aitortutako eskubide bat errealitate izan dadin gure erkidegoko pertsonen eguneroko bizitzan.

Hain zuzen ere bereizkeria eta desberdintasun horiek ezabatu nahi direlako, plan honetan neurri egokiak ezarri dira estereotipo eta jokamolde soziokultural jakin batzuk ezabatzeko, horiek, besteak beste, emakumeei ematen dietelako etxeko kontuen ardura eta gizonezkoei kontu publikoena, hori guztia balorazio ekonomiko eta entzute sozial desberdinetan oinarrituta.

Plan hau egiterakoan kontuan hartu dira, halaber, Europako, estatuko, autonomia erkidegoetako eta toki eremuko beste plan batzuk, baita berdintasunerako politika publikoen diseinuari eta kudeaketari buruzko beste agiri batzuk ere (gidak, azterlanak, eskuliburuak...).

Bereziki, Iraunkortasuneranzko Tokiko Ekintza Plan Estrategikoa (tokiko ekintza plana), Nafarroako Foru Komunitateko Emakumeen eta Gizonen arteko Aukera Berdintasunerako I. Plana (2006-2010), Aukera Berdintasunerako Estatuko V. Plan Estrategikoa (2008-2011) eta Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako 2006-2010 bitarteko Lan Plana (Europako Ekonomia eta Gizarte Lantaldearen irizpena, Batzordeak Kontseiluari, Europako Parlamentuari, Europako Ekonomia eta Gizarte Lantaldeari eta Eskualdeetako Lantaldeari egindako komunikazioari buruz).

Amaitzeko, Antsoaingo emakumeen eta gizonen arteko egiazko berdintasunaren erronka gainditzea Antsoaingo Udalaren eta bizilagun guztien konpromisoaren mende dagoelakoan, apustu egiten dugu,

abiaburu gisa, guztiok ohar gaitezen berdintasunaren lorpenak gure herriaren garapen iraunkorra dakarrela berekin.

EGITURA

Emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasunerako plan bat erakunde edota herri bateko emakumeen eta gizonen arteko berdintasun benetakoa eta eraginkorra lortzeko ezarritako neurrien multzo antolatua da. Bizitzaren alderdi guztietan sexuarengatiko bereizkeriak ezabatzea du helburu.

Agiri estrategiko honetan finkatu dira lortu beharreko berdintasun-helburuak eta horretarako hautatu beharreko estrategiak eta jardunbideak. Halaber, Antsoaingo Udalarekin eta herritarrekin egin beharreko jarduketa guztien jarraipena eta ebaluazioa egiteko sistema eraginkorrak ezarri dira.

Helburu eta neurri horiek diseinatu aurretik, planari dagozkion esparru guztietan emakumeen eta gizonen egoeraren diagnostikoa egin da, "Udalerriko genero egituraren azterketa. Antsoain 2007-2008" izeneko, hain zuzen ere. Antsoaingo emakumeen eta gizonen gizarte egoerari buruzko errealitatea islatzen duen erradiografia da.

Gainera, 2008an abian jarri zen Berdintasunerako Udal Zerbitzua, gure herriko udal politika publikoak diseinatu, planifikatu, kudeatu eta ebaluatzeko ardura duen erakundea. Hona hemen haren helburu estrategikoak: genero ikuspegia udal arlo guztietan txertatzea eta Antsoaingo emakumeen eta gizonen arteko benetako aukera-berdintasunaren bidean aurrera egitea.

Bere hastapenetatik Berdintasunerako Zerbitzu hori Tokiko Agenda 21ekin koordinatu da, eta lehentasuneko ildo estrategikotzat hartu du aukera-berdintasuna, Antsoaingo toki-garapen iraunkorraren barneko funtsezko irizpide gisa. Generoa zeharka sartu du gure herriko Tokiko Ekintza Planean jasotako ingurumen, gizarte eta etika arloetako jarduketa guztietan.

Horregatik guztiagatik, aukera-berdintasunaren aldeko I. plan hau, Udalak 2010eko urtarrilaren 27ko osoko bilkuran onetsia, zeharkako iraunkortasun politiketarako erreferentziazko esparru-dokumentuetako bat izanen da gure Udalean, eta, horrekin batera, hurrengo lau urteetan (2010-2014) abian jarriko ditu Antsoaingo herritarren arteko genero-bereizkeriak konpentsatu eta zuzentzea helburu izanen duten jarduketak.

Barne egituraren mailan, iraunkortasun-ardatz bat du, eta lau zehar-arlo: genero mainstreaming-a (Udal Administrazioa, herritarrak, lana, hezkuntza, osasuna, gizarte zerbitzuak, kultura eta kirola), emakumeen aurkako indarkeria, erantzukizun partekatua eta familiaren eta lanaren bateratzea, eta emakumeen ahalduntzea esparru guztietan.

Proiektuaren izaera bateratzaileari dagokionez, azpimarratu behar da berdintasunari buruz dauden arauak biltzen dituela: nazioartekoak, Europakoak, nazionalak, Foru Komunitatekoak eta tokikoak.

Agiri honek baditu abian jartzeko, garatzeko eta bere burua ebaluatzeko behar dituen mekanismoak eta tresnak, jarraipen sistema batekin; horretarako behar diren adierazleak eskaintzen dira arlo guztietan, planaren bitartez hemendik urte batzuetara espero diren emaitzak baloratu ahal izan daitezten.

Kontuan hartzen dira emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna lortzeko bidean oztopoak gainditzeko neurri aringarriak, baita biztanle guztiak berdintasunaren eta erantzukizun partekatuen alorrean hezteko eta gizarteratzeko prozesua xede duten prebentzio alderdiak ere.

Nabarmentzekoa da Berdintasunerako Udal Zerbitzua sortu zenetik agiri hau onetsi den arte zerbitzu horrek egin dituen jarduketa guztiek (solasaldiak, prestakuntza lantegiak, eztabaida taldeak, sentiberatze kanpainak, generoaren eragina proiektuetan...) agerian jarri dutela plan hau prestatzeko prozesua. Ekintza guztietan parte hartu duten pertsonen ekarpenak jaso dira, azaldu diren gaien gainekoak (iraunkortasuna, emakumeen aurkako indarkeria, familiaren eta lanaren bateratzea eta erantzukizun partekatua, ahalduntzea, mainstreaming-a Udalean...) eta agiri estrategiko honen proposamen teknikoari erantsi zaizkio.

Aipatu behar da, halaber, plan honen zati teknikoaren zirriborroa bidali zitzaizela talde politiko guztiei, Udaleko arlo eta zerbitzu guztiei, beste entitate batzuei, Emakumeen Elkarteari eta kolektiboari, baita Antsoaingo herritarrei banaka ere, azken agirian sartuko ziren ekarpenak biltzeko asmoz.

Horrekin guztiarekin, bestalde, honako hau berdintasunerako plana dela zabaldu nahi izan dugu, eta aholku emaile gisa parte hartu duten pertsona guztien sentikortasuna handitu nahi izan dugu aukera-berdintasunaren inguruan.

Berdintasunaren aldeko plan honek lau urte iraunen du, eta amaieran eginen den ebaluazioaren bidez ezagutu ahal izanen ditugu agiri estrategiko hau bideratzeko egindako jarduketa guztiak, haren helburuak zenbateraino bete diren jakinen dugu, denboran zehar bai udal erakundean bai herritarrengan gertatutako aldaketak ikusiko ditugu eta herritarren arteko harreman pertsonaletan izandako eragina neurtuko dugu. Planaren ahuleziak ere agerian jarriko dira, ekintzak egokitu daitezten, berdintasunaren aldeko II. plana egiteari begira.

ESTRATEGIA

Funtsezko printzipioak

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko Antsoingo I. planak bi printzipio ditu oinarrian:

-Egiturazko bereizkeriarik eza, izan ere sexuarengatiko bereizkeriazko egoerek eguneroko errealitate izaten segitzen baitute. Ondorioz beharrezkoa da ekintza indargarriak egitea, bai udal erakundearen egiturari eta funtzionamenduari eta bai gizartean eta herritarrengan duen proiektioari eraginen dietenak eta sexuagatiko bereizkeriari aurka eginen diotenak.

-Berdintasuna, berezko balioztat hartuta, biztanleen %51 emakumezkoak baitira, ez da kolektibo bat. Inongo gizarterik ez dago bere adimen-altxorren eta giza ahalmenaren erdia bazter uzteko moduan.

Printzipio gidariak.

Proiektu hau garatzeko jarduketek ondoko estrategiei jarraituko diete:

-Zeharkakotasuna edo mainstreaming-a: genero ikuspegia Udalaren politika eta jarduketa guztiei gehitzean datza, horrela bermatzen baita emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna neurri orokor eta jarduketa zehatz guztietan.

-Ekintza positiboak: generoarengatiko bereizkeriei amaiera emateko neurri zuzentzaileak, Emakumeen eta Gizonen arteko Benetako Berdintasunerako 2007ko Lege Organikoan jasotakoak.

-Gizartearen parte-hartzea: bai barnekoa bai kanpokoa, udal arlo guztien lankidetzeta eta inplikazioa sustatuz, baita gizarteko eragileena eta herritarrena ere, parte hartzeko mekanismoak bultzatuz, haien lankidetzeta errazteko hala planaren prestaketan nola ezarpenean.

Jarduketa ildoak

-Egitura eta material egokiak sortu eta sendotzea, genero-zeharkakotasuna errazago sartu ahal izateko Antsoingo Udalaren garapen iraunkorraren prozesu osoan.

-Prestakuntza ematea, berdintasunaren aldeko politika publikoetako kontzeptuak ikasteko eta oinarrizko tresnak erabiltzeko.

-Aholku ematea, Antsoingo Udaleko arlo guztietan genero-zeharkakotasunerako jarduketak diseinatu eta burutzeko.

-Ikerketa, jarduketak egokitzeko, horien xede izanzen diren arloen eta pertsonen errealitate zehatzak kontuan harturik.

-Dauden eskubide eta baliabideei buruzko informazioa, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna benetan lortzeko bide gisa.

-Udaleko arloen eta Antsoingo beste erakunde eta talde batzuen arteko koordinazioa.

-Plana ebaluatzeko tresnen garapena.

-Planaren ebaluazio etengabea, ekintzaren kalitatea eta eraginkortasuna frogatzeko ez ezik, baita edozein jarduera publikotan ezinbestekoa den gardentasun maila berdintasunaren aldeko politiketara ekartzeko ere.

-Plana bideratzeko jarduketan zabalkundea, barnekoa zein kanpokoa.

-Gizartea sentikortzea, jendea ohar dadin oraindik ere desberdintasunak daudela sexuen artean eta beharrezkoa dela herritartasunerako hezkuntza, aukera-berdintasunarekin zerikusia duten balioak sustatuko dituen, iraunkortasunean integraturik.

-Emakumeen arteko elkartasuna, bai hemengo emakumeen eta etorkinen artean, bai kolektibo bakoitzaren barnean.

Esku hartzeko ardatz eta arloak

Iraunkortasun-ardatza.

Gizonen eta emakumeen arteko harremanen antolaera gizartearen garapenean eta ongizatean eragin handiena duten faktoreetakoa da. Nazio Batuek garapena neurtzeko erabiltzen dituzten adierazleetan kontuan hartzen da emakumeen egoera, garapenak lotura nabarmena duelako emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasunarekin. Harreman horiek, beraz, arrazoimenean eta gizarte errealitatean oinarritutako irizpideen arabera antolatu behar dira, eta ez naturari edo ohiturari jarraituz.

Genero berdintasuna, beraz, garapen iraunkorraren barnean dago eta, aldi berean, garapen iraunkorraren helburu da, baita alde zuzeneko baldintza ere. Funtsezkoa da ulertzea genero berdintasuna ez dela emakumei mesede egitea besterik gabe, gizarte iraunkortasunaren eta bizi kalitatearen aldeko apustu baten parte bat baizik.

Azken batean, gizarte iraunkor batek kontuan hartzen ditu gizakien beharrak eta haien bizi kalitatea, eta jaramon egiten dio emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasunaren benetako garapenari. Berdintasun hori bateraezina da, argi eta garbi, emakumeek Antsoainen ere jasaten duten egiturazko bereizkeriarekin.

1. proiektua.-Genero-zeharkakotasuna iraunkortasunean.

S1.1 helburua.

Aukera-berdintasuna udal politika publiko guztietan txertatzea, gizarte irizpide iraunkor gisa.

S1.1.1 ekintza.-Genero ikuspegia Tokiko Ekintza Planean sartzea.

S1.1.2 ekintza.-Udaleko politikari eta teknikarientzat iraunkortasunaren arloko prestakuntza diseinatu eta ezartzea genero ikuspegitik, haien beharretarako egokia, irizpide sozialei, etikoei eta ingurumen irizpideei jarraituz.

S1.1.3. ekintza.- Iraunkortasunaren egoerari buruzko azterlana egitea Antsoainen, genero ikuspegia aintzat hartu eta emakumeen beharrak agerian jarriko dituen.

S1.1.4 ekintza.- Urtero aztertzea, generoaren ikuspegitik, Udalaren politikak hirigintzaren, garraio publikoaren eta ingurumenaren arloetan.

S1.1.5 ekintza.-Antsoaingo Udalak kontratazio iraunkorra egitea, irizpide sozial eta etikoak eta ingurumena aintzat hartuz.

S1.6 ekintza.-Iraunkortasun proiektuetako estatistika guztietan sexuak bereiztea.

S1.1.7 ekintza.-Politika publiko iraunkorren diseinuan, antolaketan eta ebaluazioan emakumeen parte-hartze handiagoa lortzeko prozesuak bultzatzea.

S1.1.8 ekintza.-Iraunkortasunarekin zerikusia duten udal arau eta jarduketa guztien genero-eragina aztertzea haiek ezarri aurretik eta ondoren.

S1.1.9 ekintza.-Aukera-berdintasunaren printzipioarekin bat datozen kalitate-adierazleak zehaztea hirigintza planetan, erabilera kolektiboko espazio publiko eta pribatuen diseinuan eta erabileran eta garraio publikoan.

S1.1.10 ekintza.-Iraunkortasunaren gaineko sentikortze kanpainak, jardunaldiak eta materialak egitea Antsoaingo herritarrentzat, genero ikuspegia barnean hartuz.

S1.1.11 ekintza.-Udalak konpromisoa hartzea genero ikuspegia Udalaren iraunkortasun konpromisoan erabat integratuz ez emateko harik eta irizpide iraunkor guztietan lortu arte emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasun egokia, hau da, Berdintasunari buruzko 2007ko Legean definitutakoa.

S1.1.12 ekintza.-Iraunkortasunerako praktika onen gaineko bateratze lana egitea, generoa aintzat hartuz, beste erakunde batzuekin (toki entitateak, autonomia erkidegokoak, estatukoak...).

Arlo arduradunak: Tokiko Agenda 21 eta Berdintasunerako Zerbitzua.

Arlo laguntzaileak: gainerako udal zerbitzuak.

Genero mainstreaming-aren zehar-arloa.

Mainstreaming-aren ardatzean lehenbiziko helburua da Udalari ahalmena ematea genero ikuspegia erants diezaien bere politika eta lan-prozesuen diseinuari eta ezarpenari. Horretarako baldintza egokiak sortu behar dira erakundearen funtsezko sei esparrutan. Hauek dira: berdintasunezko plangintza, gaikuntza politikoa, gaikuntza teknikoa, sustapenerako, koordinaziorako, jarraipenerako eta parte hartzeko egituren sorrera, azterketarako tresnen sorrera eta prozeduren birdiseinua.

Bestalde, herritarrekiko komunikaziorako, jarraipenerako eta partaidetzarako bide egonkorak ezarri behar dira, bai herritar antolatuak eta bai antolatu gabekak gehiago inplika daitezen.

Esku hartzeko eremua: Udal Administrazio osoa.

-1. proiektua.-Baliabideen sorrera, egokitzapena eta hornidura.

M1.1 helburua.

Toki Administrazioaren lanerako baliabideak, finantza baliabideak eta giza baliabideak ikertu, prestatu eta egokitzea.

M1.1.1. ekintza.-Udaleko arlo eta esparruetan behar diren azterlan, diagnostiko eta txostenak egitea Antsoaingo emakumeen egoerari buruz, kasu desberdin guztiak kontuan hartuz.

M1.1.2 ekintza.-Azterlan, inkesta eta estatistikako erregistro guztietan sexu aldagaia sistematikoki sartzea.

M1.1.3 ekintza.-Udalarentzat ari diren langileen etengabeko prestakuntzarako programaren barnean ematen diren ikastaro guztietan genero ikuspegia sartzea.

M1.1.4 ekintza.-Udalaren plantillako langileentzat ikastaroak antolatzea aukera-berdintasunari, sexuagatiko bereizkeriari eta zeharkakotasunari buruz.

M1.1.5 ekintza.-Teknikariei prestakuntza ematea, genero ikuspegia sar dezaten programetan, proiektuetan, protokoloetan, laguntzetan...

M1.1.6 ekintza.-Aukera-berdintasunerako politiken inguruko gaiak jasotzea Udal Administrazioarako oposizioetako gaien zerrendetan.

M1.1.7 ekintza.-Eztabaida, jardunaldi eta mintegien bitartez Udal Administrazioako politikari eta teknikariak sentikortzea emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasunaz.

M1.1.8 ekintza.-Udal aurrekontuetan genero ikuspegia sartzea.

M1.1.9 ekintza.-Udal Administrazioako zuzendaritza taldeetan emakumeen eta gizonen partaidetza orekatzeko ekintza positiboak egitea, Administrazioaren egituraren generoaren arabera bereizketa bertikala eta horizontala murrizteko.

M1.1.10.-Antsoaingo Udaleko kontratazio epaimahaietan genero ikuspegia sartzea.

M1.1.11 ekintza.-Udalaren lehiaketa edo/eta oposizioetako hautapen mahaietan emakumeen eta gizonen partaidetza orekatua sustatzea.

M1.1.12 ekintza.-Koordinazioarako udal egitura bat sortzea, berdintasunaren aldeko I. plana bultzatu, garatu eta betetzeko.

M1.1.13 ekintza.-Antsoaingo emakume elkarteei, kolektiboari eta herritarrei Udalaren berdintasun politiketan parte hartzea erraztuko dieten egiturak sortzea.

M1.1.14 ekintza.-Aukera Berdintasunerako Zerbitzua sendotzea, lan egiteko behar dituen langileak eta baliabide teknikoak emanez.

M1.1.15 ekintza.-Antsoaingo herritarrei informazio juridikoa, psikologikoa, lan arlokoa eta gizarte arlokoa ematea genero ikuspegitik, aukera-berdintasunarekin loturik.

M1.1.16 ekintza.-Estereotipo sexisten eta bereizkerien kontrako salaketak jaso eta Berdintasunerako Udal Zerbitzura edo eskumena duten erakundeetara bideratzea.

M1.1.17 ekintza.-Koordinazioa eta lankidetzak beste udal batzuekin eta berdintasunaren aldeko erakundeekin.

Arlo arduradunak: Tokiko Agenda 21 eta Berdintasunerako Zerbitzua.

Arlo laguntzaileak: gainerako udal zerbitzuak.

-2. proiektua.-Udal araudia eta administrazio agiriak.

M1.2.1 ekintza.-Indarra duten arau eta prozedurak sistematikoki berrikustea, sexismoak eta ezkutuko bereizkeriak ezabatzeko.

M1.2.2 ekintza.-Lan publikoaren eskaintzak, lanpostuen zerrendak eta plantilla organikoa sistematikoki berrikustea, sexismoak eta ezkutuko edo zeharkako bereizkeriak ezabatzeko, baita ordainsarien arteko aldeak ere.

M1.2.3 ekintza.-Udal arauak generoaren ikuspegitik izanen duten eraginaren aurretzeko ebaluazioa egitea

M1.2.4. ekintza.-Udal zerbitzuen zerbitzu-gutunetan genero ikuspegia sartzea.

M1.2.5 ekintza.-Antsoaingo emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna bermatzeko udal araudia garatzea.

Arlo arduradunak: Berdintasunerako Zerbitzua eta Idazkaritza

Arlo laguntzaileak: gainerako udal zerbitzuak.

-3. proiektua.-Politika orokorrak eta sektorialak.

Plangintza, betearazpen, ebaluazio eta komunikazio prozesu osoa sistematikoki berrikustea, eta metodologiak ezartzea genero ikuspegia eransteko eta bi sexuen arteko berdintasunerako neurriak antolatzea.

M1.3.1 ekintza.-Generoari eta aukera-berdintasunari begira Udalaren plan honetarako sortu diren adierazleen sistema bera politika eta plangintza orokor eta sektorial guztietan sartzea eta moldatzea, adierazle horiek kontuan har daitezkeen ikerketan, plangintzan, exekuzioan eta ebaluazioan.

M1.3.2 ekintza.-Berdintasun-ardatza sistematikoki sartzea Udalaren plangintza orokor eta sektorial guztietan.

M1.3.4 ekintza.- Udalaren plan eta programak berdintasunaren aldeko Antsoingo I. planarekin koordinatu eta bateratzea.

M1.3.5 ekintza.- Udalaren eta haren arlo eta zerbitzuen eskumen-banaketa orokorra eta sektoriala ezartzea planaren exekuziorako.

M1.3.6 ekintza.-Gidalerro orokorrak ezartzea erakundeen komunikaziorako, publizitaterako, zabalkunderako eta argitalpenetarako, sexismoak, ezkutuko bereizkeriak eta emakumeen ikusezintasuna edo gutxiespena ezabatzeko.

M1.3.7 ekintza.-Hizkuntzaren eta irudien erabilera sexista baztertzea Udalaren egitura osoan.

M1.3.8 ekintza.-Aukera-berdintasunaren aldeko neurriak udal eremuan aplikatzeko praktika onak prestatzea.

M1.3.9 ekintza.-Urtero txostena egitea arlo eta zerbitzu guztietan, plana nola betetzen den aztertuta.

Arlo arduradunak: Berdintasunerako Zerbitzua eta gainerako udal zerbitzuak

Esku hartzeko eremua: Antsoingo herritarrak

-1. proiektua.-Antsoingo herritarrak berdintasun gaiez informatu eta sentikortzea.

MC1.1 helburua.

Antsoingo herritarrak aukera-berdintasunaz, erantzukizun partekatuaz eta ekitateaz sentikortzea.

MC1.1.1 ekintza.-Herritarrak sentikortzeko kanpainak egitea berdintasunaren aldeko politikei lotuta.

MC1.1.2 ekintza.-Berdintasunerako garrantzia duten egunak ospatzea: martxoaren 8a, azaroaren 25a, herriko jaiak...

MC1.1.3 ekintza.-Komunikazio plana egitea Udalaren berdintasun arloko politiken berri zabaltzeko.

MC1.1.4 ekintza.-Udalaren diru-laguntzetan aukera-berdintasunaren irizpidea erabiltzea.

MC1.1.5 ekintza.-Emakumeek gizartearen ongizaterako egiten duten ekarpenari buruzko erakusketa, hitzaldi, ikerketa eta azterlanak egitea.

MC1.1.6 ekintza.-Gizonak mendekotasuna duten pertsonak zaintzen eta etxeko lanak egiten aritu daitezen sustatzeko kanpainak egitea.

MC1.1.7 ekintza.-Aukera-berdintasunari eta maskulinitateei buruzko prestakuntza ematea gizonei.

MC1.1.8 ekintza.-Berdintasunaren alde diharduten gizonen elkarteak eta gizon eta emakumeen elkarte mistoak sustatzea.

Arlo arduradunak: Berdintasunerako Zerbitzua eta udal zerbitzu guztiak

Arlo laguntzaileak: Ezkaba Ikastetxe Publikoa, Osasun Etxea, kolektiboak, elkarteak...

MC1.2 helburua.

Komunikabideetan eta publizitatean irudi sexistak eta eduki matxistak aldatzea.

MC1.2.1 ekintza.-Komunikabideak sentikortzea, politikagintzan edo hiriko gizarteko bizitzan parte hartzen duten emakumeak beste era batera aurkez ditzaten.

MC1.2.2 ekintza.-Publizitate sexistaren salaketa publikoa egitea, eta salaketak bideratzea, ditugun baliabideetara irits daitezen, esate baterako, Emakumeen Institutu Nazionalako salaketa-behatokira.

MC1.2.3 ekintza.-Informazioaren, irudien eta hizkuntzaren erabilera ez sexista sustatzeko materialak sortzea edo lehendik daudenak zabaltzea.

Arlo arduradunak: Berdintasunerako Zerbitzua eta udal zerbitzu guztiak

Arlo laguntzaileak: Ezkaba Ikastetxe Publikoa, Osasun Etxea, kolektiboak, elkarteak, komunikabideak...

Esku hartzeko eremua: lana.

-1. proiektua.-Emakumeak aukera-berdintasunez laneratu daitezen sustatzea.

E1.1 helburua.

Emakumeak laneratu daitezen, lanean iraun dezaten eta gora egin dezaten sustatzea.

E1.1.1 ekintza.-Tokiko Enplegu Zerbitzua sendotzea.

E1.1.2 ekintza.-Lanerako prestakuntzako programak eta enplegu lantegiak garatzea emakumeak laneratzeko, inguruko enpresen beharrak bereziki kontuan hartuz.

E1.1.3 ekintza.-Aditzera ematea udalerriko langabeen eta landunen tasak, sektoreka eta kategoriaka, prestakuntzaren arabera, adinak eta sexuak bereizita.

E1.1.4 ekintza.-Enpresaburuak emakumeen kontratazioari buruz sentikortzeko jarduerak egitea.

E1.1.5 ekintza.-Jarraipena egitea, enpresei zuzendutako neurrien baliagarritasuna zehazteko.

Arlo arduradunak: Enplegu Zerbitzua eta Berdintasunerako Zerbitzua

Arlo laguntzaileak: Foru Komunitateko eta Estatuko beste enplegu zerbitzu batzuk.

E1.2 helburua.

Emakumeen bereizketa horizontala eta bertikala murriztea lan arloan.

E1.2.1 ekintza.-Lanerako prestakuntzarako programak eta prestakuntza eta enplegurako programak garatzea emakumeentzat, emakume gutxi dagoen sektoreetan emakumeak kontrata ditzaten.

E1.2.2 ekintza.-Genero bereizketa bertikal eta horizontalari buruzko azterlana egitea Antsoaingo enpresetan.

E1.2.3 ekintza.-Enpresaburuak eta ordezkari sindikalak sentikortzea, berariaz, emakume gutxi dagoen sektoreetan emakumeak kontratatu eta mailaz igo daitezen.

Arlo arduradunak: Enplegu Zerbitzua eta Berdintasunerako Zerbitzua

Arlo laguntzaileak: Foru Komunitateko eta Estatuko beste enplegu zerbitzu batzuk.

E1.3 helburua.

Emakumeen ikaskuntza sustatzea.

E1.3.1 ekintza.-Emakumeei laguntzea beren kabuz lan egin dezaten, tramiteak egiteko eta lokalak lortzeko erraztasunak, laguntzak eta diru-laguntzak emanez, banku erakundeekin akordioak sinatuz, eta Tokiko Enplegu Zerbitzuak enplegu gaietan tokiko beste zerbitzu batzuekin, foru zerbitzuekin eta Estatukoekin koordinaturik eta elkarlanean egiten dituen jarduerak sendotuz.

E1.3.2 ekintza.-Emakumeen autoenplegua agerian jartzeko publizitate kanpainak egitea Antsoaingo emakumezko enpresaburu eta langile autonomoen laguntzaz, beste emakume batzuentzat eredu izan daitezen.

Arlo arduradunak: Enplegu Zerbitzua eta Berdintasunerako Zerbitzua

Arlo laguntzaileak: Foru Komunitateko eta Estatuko beste enplegu zerbitzu batzuk.

E1.4 helburua.

Sektore publikoan nahiz sektore pribatuan emakumeen presentzia areagotzea ardurako postuetan.

E1.4.1 ekintza.-Zuzendaritza eta buruzagitza postuetako zereginei buruzko etengabeko prestakuntzan emakumeentzako erreserba-kuota ezartzea.

E1.4.2 ekintza.-Udalerriko enplegu-sektore guztietako ardurako postuetan emakumeek eta gizonak duten partaidetza desberdina aztertzea.

E1.4.3 ekintza.-Enpresak eta sindikatuak sentikortzea emakumeek ardurako postuetan duten partaidetza desberdinaz.

Arlo arduradunak: Enplegu Zerbitzua eta Berdintasunerako Zerbitzua

Arlo laguntzaileak: Foru Komunitateko eta Estatuko beste enplegu zerbitzu batzuk.

-2. proiektua.-Laneko jazarpen sexista eta sexu jazarpena ezabatzea.

E2.1 helburua.

Jazarpen sexistari eta sexu jazarpenari aurrea hartzeko eta hura tratatzeko protokoloak ezartzea administrazio publikoetan eta sektore pribatuko enpresetan.

E2.1.1 ekintza.-Legerian jasotako neurrien zabalkundea.

E2.1.2 ekintza.-Informazio eta sentikortze kanpainak egitea laneko jazarpen sexistari eta sexu jazarpenari buruz, bai Udalean, bai enpresa eta erakundeetan.

E2.1.3 ekintza.-Laneko sexu jazarpenaren aurkako neurriak sartzeari Udaleko negoziazio kolektiboan.

E2.1.4 ekintza.-Jazarpen sexistari eta sexu jazarpenari aurrea hartzeko eta haren kontra esku hartzeko protokoloak egin daitezen sustatzea.

Esku hartzeko eremua: hezkuntza.

-1. proiektua.-Hezkidetzaren sustatzea.

ED1.1 helburua.

Hezkidetzaren udalerriko hezkuntza esparruan sartzea

ED1.1.1 ekintza.-Hezkuntza elkartean sentikortze kanpainak egitea ondoko gaien inguruan: bereizkeriazko jarrera eta portaerak, genero estereotipoak eta harremanak, hezkuntza ez sexista, kirol eta aisiako eremuen erabilera, jolas eta jostailu ez sexistak.

ED1.1.2 ekintza.-Hezkuntza elkarteari argibide eta aholkuak ematea eta azterlan, ikerketa eta materialak banatzea, ondoko gaiak direla eta: genero analisia, hezkidetzaren, orientazio ez sexista.

ED1.1.3 ekintza.-Berdintasunaren eta erantzukizun partekatuen gaineko prestakuntza ematea guraso elkarteei.

ED1.1.4 ekintza.-Generoaren arloko prestakuntza ematea 0-3 urte arteko haurren irakasleei eta udal jardueretako begiraleei.

ED1.1.5 ekintza.-Berdintasunaren arloko prestakuntza aintzat hartzea Udaleko hezitzaileak aukeratzeko.

Arlo arduradunak: Berdintasunerako Zerbitzua.

Arlo laguntzaileak: haur eskola, ikastetxe publikoa, Gaztelekua eta Liburutegia.

ED1.2 helburua.

Hezkuntzako material sexistarik ez erabiltzea.

ED1.2.1 ekintza.-Hezkidetzako irizpideak ezartzea, hezkuntza elkarteari liburuak, hezkuntza materialak eta abar erosteko.

ED1.2.2 ekintza.-Hezkuntzako materialak (jostailu, ipuin eta abarrekoei) genero ikuspegitik berrikustea haur eskoletan eta beste hezkuntza esparru batzuetan.

ED1.2.3 ekintza.-Hezkidetzako material eta jardunbideei buruzko gida eta katalogoak diseinatzea.

Arlo arduradunak: Berdintasunerako Zerbitzua

Arlo laguntzaileak: haur eskola, ikastetxe publikoa, Gaztelekua eta Liburutegia.

-2. proiektua.-Erantzukizun partekatua sustatzea hezkuntza esparruan.

ED2.1 helburua.

Neska-mutilen etxeko zereginetan eta zaintza lanetan erantzukizun partekatua areagotzea.

ED2.1.1 ekintza.-Erantzukizun partekatuari buruzko informazio eta sentikortze programak garatzea gurasoentzat, irakasleentzat eta begiraleentzat.

ED2.1.2 ekintza.-Udalerrian "erantzukizun partekatuen astea" egitea.

ED2.1.3 ekintza.-Hezkidetzako programak garatzea haur eskoletan eta Udalaren eskumeneko beste hezkuntza esparru batzuetan, baita hezkuntza programa osagarriak ere, erantzukizun partekatua areagotzeko. ED2.1.4 ekintza.-Erantzukizun partekatua sustatzen duten materialak eskaintzea haur eskolari, ludotekari, Gaztelekuari eta abarrekoei.

Neska-mutilen etxeko zereginetan eta zaintza lanetan.

Arlo arduradunak: Berdintasunerako Zerbitzua

Arlo laguntzaileak: haur eskola, ikastetxe publikoa, guraso elkartek, Gaztelekua eta Liburutegia.

Esku hartzeko eremua: osasuna.

-1. proiektua.-Osasun gaiez sentikortzea generoa aintzat harturik.

S1.1 helburua.

Udaleko osasun arloan genero ikuspegia sartzea.

S1.1.1 ekintza.-Osasunaren eta droga-mendetasunaren arloko politikak genero ikuspegitik aztertzea urtero.

S1.1.2 ekintza.-Genero gaitan aholku ematea, gure toki esparruan, beste administrazio batzuetako osasun zerbitzuei (arreta bereziz zaindu behar dituzte gehienbat emakumezkoek erasaten dituen gaixotasunak, hala nola fibromialgia edo bularreko minbizia).

S1.1.3 ekintza.-Osasunarekin zerikusia duten elkartek aukera-berdintasunaz sentikortu eta informatzea.

Emakumezkoek beren osasunari eta beren osasunaren kudeaketari buruz duten informazioa eta erabakimena handitzea.

S1.2.1 ekintza.-Ongizate fisiko eta mentalari buruzko informazio eta sentikortze kanpainak egitea genero ikuspegitik.

S1.2.2 ekintza.-Informazio eta sentikortze kanpainak egitea jan-ohitura osasuntsuen garrantziari buruz, genero ikuspegitik, arreta berezia emanez elikadura-nahasmenduei eta horien arriskuei.

S1.2.3 ekintza.-Tokiko Osasun Kontseiluan parte hartzea, osasunarekin eta generoarekin zerikusia duten gaiak proposatzeko.

Emakumeek beren osasun afektibo-sexualaz eta ugalketa-osasunaz eta horren kudeaketaz duten informazioa eta erabakimena handitzea.

S1.3.1 ekintza.-Sexualitatearen bizipen positiboa sustatzeko kanpainak egitea.

S1.3.2 ekintza.-Osasun afektibo-sexualaren eta ugalketa-osasunaren kudeaketa autonomo eta arduratsua xede duten sentikortzea eta prestakuntza.

S1.3.3 ekintza.-Informazio, orientazio/aholkularitza eta laguntza zerbitzuak garatzea osasun afektibo-sexualaren eta ugalketa-osasunaren eremuetan.

S1.4 helburua:

Mendetasuna sortzen duten substantzien kontsumoan generoak duen eraginari buruzko informazioa areagotzea.

S1.4.1 ekintza.-Informazio eta prebentzio kanpainak egitea, substantzien kontsumoan eragina duten genero-faktoreei eta lotutako arriskuei buruz.

Arlo arduradunak: Berdintasunerako Zerbitzua.

Arlo laguntzaileak: Osasun Etxea.

Esku hartzeko eremua: gizarte zerbitzuak.

-1. proiektua.-Arriskuan dauden emakumeak gizarteratzea.

SS1.1 helburua.

Baztertzeko arriskuan dauden pertsona behartsuentzako baliabideak egokitzea, egoera horretan dauden emakumeen baldintzak eta posizioak hobetzeko.

SS1.1.1 ekintza.-Gizartetik baztertzeko arriskuan dauden emakumeen beharrak, gizarte baliabideekin loturik daudenak, zenbateraino estaltzen diren aztertzeko.

SS1.1.2 ekintza.-Baztertzeko arriskuan dauden emakume behartsuen premia sozialetarako Udalak ematen duen estalduraren berri zabaltzea arduradun politikoen artean.

SS1.1.3 ekintza.-Pobrezian dauden emakumeek eskatzen dituzten laguntza ekonomikoak arin emateko bideak sortzea.

SS1.1.4 ekintza.-Gizartetik baztertzeko arriskuan dauden emakumeen enplegua sustatzeko neurriak eta haien kontratazioa babesteko programak diseinatu eta ezartzea.

Arlo arduradunak: gizarte zerbitzuak eta Berdintasunerako Zerbitzua.

Arlo laguntzaileak: Enplegu Zerbitzua eta gainerako udal zerbitzuak.

Esku hartzeko eremua: kultura eta kirola

-1. proiektua.-Kultur eta kirol elkarteetan genero ikuspegia sartzea.

CD1.1 helburua.

Kultur eta kirol jarduerak eta astialdikoak genero ikuspegitik planifikatu eta egitea.

CD1.1.1 ekintza.-Udalerrian kultur eta kirol arloetan diharduten enpresa azpikontratatuak eta entitateei prestakuntza eta laguntza teknikoak ematea genero ikuspegia bereganatzea.

CD1.1.2 ekintza.-Beren egituretan eta lan esparruen garapenean genero ikuspegia sartzen ari diren entitateei laguntza teknikoak eta, hala behar denean, ekonomikoak ematea.

CD1.1.3 ekintza.-Berdintasun printzipioarekin eta genero ikuspegiarekin zerikusia duten irizpideak ezartzea Udalaren diru-laguntza eta lehiaketetarako deialdietan.

CD1.2 helburua.

Emakumeen eta gizonen kirol jarduera dibertsifikatzea, emakumeak gizonen ohiko kirolean eta gizonak emakumeen ohiko kirolean aritzeko bideak ezarri.

CD1.2.1 ekintza.-Eskola umeen kirol jardueretan bereizketa eragiten duten genero-faktoreen gaineko ikerketak egitea.

CD1.2.2 ekintza.-Sentikortze kanpainak egitea, genero-estereotiporik gabeko kirol jarduera sustatzeko.

Arlo arduradunak: Kultura eta Kirol Zerbitzua eta Berdintasunerako Zerbitzua.

Arlo laguntzaileak: Antsoaingo Udalarentzat kultur eta kirol zerbitzuetan ari diren profesional eta enpresak; kultur eta kirol talde eta elkarteak.

Emakumeen aurkako indarkeriaren zehar-arloa.

Honela definitu dute Nazio Batuek emakumeen aurkako indarkeria: "bizitza publikoan nahiz pribatuan burututako indarkeriazko egintza, generoan oinarritua, kalte fisiko, sexual edo psikologikoa dakarrena edo ekar dezakeena, mehatxuak, hertsatzea eta askatasun gabetze arbitrarioa barne". Eta Miguel Llorentek, auzitegieta medikua eta genero indarkeriarako Gobernuaren ordezkaria bera, 1998an emakumearen kontrako erasoaren sindromea definitu zuen: "genero maskulinoaren eta femeninoaren gaineko baldintza soziokulturalen ondorioz emakumeek jasaten dituzten erasoak, emakumea gizonaren mendean jartzen dutenak eta pertsonen hiru harreman-esparru nagusietan azaltzen direnak: tratu txarrak etxean, sexu erasoak gizarte bizitzan eta jazarpena lanean".

Bai Udaleko zerbitzuen artean eta bai erakunde mailan ere Udalaren koordinazio sendoa ahalbidetuko duten egiturak sortu beharra dago, horrela bultzatu eta garatu ahal izanzen baitira biktimei diren emakumeei laguntzeko neurriak, prebentzio programak eta informazio eta sentikortze kanpaina egokiak. Beharrezkoa da, halaber, prestakuntza ekintzak antolatzea, udal egitura osatzen duten pertsona guztiek sakonago ezagutu ahal izan ditzaten gizartearen izurri hori eta berari ekiteko estrategiak.

-1. proiektua.-Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei laguntzea.

V1 helburua.

Administrazioaren koordinazioa bultzatu eta hobetzea emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko borrokan.

V1.1.1 ekintza.-Emakumeen aurkako indarkeria gaitan esku hartu behar duten zerbitzuei prestakuntza ematea udal esparruan.

V1.1.2 ekintza.-Tokiko jarduketa-protokoloa egitea, emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei laguntzeko, oinarritzat hartuz Nafarroako Gobernuaren Jarduketa Protokolo Integrala.

V1.1.3 ekintza.-Lantalde koordinatu bat sortzea, emakumeen aurkako indarkeria kasuetan lan egiten eta esku hartzen duten tokiko zerbitzuek osatua, protokoloa aplikatu dezan eta hobekuntzarako neurriak proposa ditzan.

-2. proiektua.-Emakumeen aurkako indarkeriari aurre hartzea.

V2 helburua:

Sentikortze kanpainak egitea emakumeen aurkako indarkeria errotik ezabatzeko.

V2.1.1 ekintza.-Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko sentikortze eta prebentzio kanpainak egitea herritarren artean.

V2.1.2 ekintza.-Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko prestakuntza ematea kolektiboari eta herritar guztiei.

Arlo arduradunak: Berdintasunerako Zerbitzua, Udaltzaingoa, gizarte zerbitzuak.

Arlo laguntzaileak: Enplegu Zerbitzua, Tokiko Agenda 21, Ezkaba Ikastetxe Publikoa, Haur Eskola eta Osasun Etxea.

Erantzukizun partekatuen eta familiaren eta lanaren bateratzearen arloa.

Emakumeen eta gizonen arteko harremanek aldaketa garrantzitsuak izan dituzte azken urteotan, hala esparru pribatuan nola publikoan, eta sexuei esleitutako rolak malgutu egin dira. Familia eta bizikidetzaren eredu berriek, etxeko ardurak partekatzea onuragarria delako uste gero eta zabalduagoarekin batera, aurre egin behar diete, ordea, lanaren sexu banaketan oinarrituta ez dagoen harreman eredu berri bat ezartzeko orduan balaztarena egiten duten gizarte egiturei eta pentsamoldeei. Ondorioz, hor dirau emakumeen mendekotasunak.

Gaur egungo aldaketei egokitutako eredu berri honetan ahaleginak egiten dira emakumeek eta gizonen elkarrekin parteka ditzaten espazioak (bai publikoa bai pribatua), baliabideak, etxeko ardurak, ardua profesionalak eta ekonomikoak. Ardatz honen gako estrategikoa "famiaren eta lanaren bateratzea" terminoa gainditzean datza, oraindik ere "emakumeen kontu" gisa ikusten baitu gizarteak. Horren ordez, emakumeen eta gizonen, gizarte eragileen eta erakunde publiko eta pribatuen erantzukizun partekatuaz hitz egin behar dugu.

Tresna egokiak behar dira, beraz, udalerrriaren egoeraren ezagutzan oinarritutako erakunde berri bat lortzeko, udal zerbitzuak eta zerbitzu pribatuak koordinatzeko, gizartearen beharrei erantzun diezaieten, eta barne eztabaida sustatzeko famiaren eta lanaren bateratzeaz eta erantzukizun partekatuaz, alegia, bi arlo horien egoeraz eta hartu beharreko neurriez. Gizarte esparruan beharrezkoa da gizonen kontzientziario eta gizarte inplikazio handiagoak sustatzea etxeko lanen eta zaintzaren arloan, komunikazio, parte-hartze eta prestakuntza prozesuen bitartez.

-1. proiektua.-Antsoingo herritarrei lana, familia eta bizitza pertsonala bateratzen laguntzeko egiturak eta zerbitzuak garatzea.

C1 helburua.

Gizarte antolaketa aldatzen lagunduko duten tresnak sortzea, emakumeen eta gizonen arteko erantzukizun partekatua eta bizitza pertsonalaren, famiaren eta lanaren bateratzea helburu.

C1.1.1 ekintza.-Famila eta lana bateratzeari buruzko informazio ekintzak garatzea.

C1.1.2 ekintza.-Famila eta lana bateratzeko azpiegituren eta neurrien egoera ezagutzeko ekintzak egitea, eta hobekuntzarako proposamenak egin eta gauzatzea.

C1.1.3 ekintza.-Beste administrazio batzuek erantzukizun partekatuaren alorrean garatutako neurriei buruzko informazioa.

C1.1.4 ekintza.-Famila eta Lana Bateratzeko Tokiko Ituna diseinatu eta garatzea, erantzukizun partekatua abiapuntutzat harturik famila eta lana bateratzeko, Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren laguntzaz. Denbora banatu eta erabiltzeko moduan (denbora soziala, kolektiboa, lan ordutegiak...) dauden desberdintasunen gainean gogoeta egiteko espazioak sortzea udalerrian, lanaren eta famiaren bateratzea eta erantzukizun partekatua funtsezko elementutzat hartuta.

C1.1.5 ekintza.-Prestakuntza ematea pertsonen eta denboren antolaketa eta kudeaketaz, famiaren eta lanaren bateratzeaz eta erantzukizun partekatuaz.

C1.1.6 ekintza.-Ama eta aitentzako laneko baimen, lizentzia eta eszedentziei buruzko araudiaren zabalkundea egitea.

C1.1.7 ekintza.-Erantzukizun partekatua eta famiaren eta lanaren bateratzea ahalbidetzen dituzten neurriak sartzeko negoziario kolektiboan.

Arlo arduradunak: Berdintasunerako Zerbitzua eta gainerako udal zerbitzuak.

-2. proiektua.-Erantzukizun politiko, lan erantzukizun eta gizarte erantzukizun partekatuak.

C2 helburua:

Erantzukizun partekaturanzko urrats eta erronken gaineko lanean gizartearen ezagutza, inplikazioa eta parte-hartzea areagotzea.

C2.1 ekintza.-Udalerrian erantzukizun partekatuaren egoeraren diagnostikoa egitea.

C2.2 ekintza.-Sentikortze kanpainak egitea erantzukizun partekatuari buruz.

C2.3 ekintza.-Berdintasunaren aldeko ekintza eredugarriak garatzea kargu politikoekin eta gizartean entzutea duten pertsonekin.

C2.4 ekintza.-Udal arteko talde tekniko bat sortu eta garatzea jarduera hauek egiteko: denbora erabiltzeko orduan dauden desberdintasun eta aldeei buruzko datuak zabaltzea; erantzukizun partekatuari buruzko biltzar, jardunaldi eta horrelakoak antolatzea, eta prestakuntza eta sentikortze ikastaroak egitea.

Arlo arduradunak: Berdintasunerako Zerbitzua.

Arlo laguntzaileak: Antsoingo gainerako zerbitzuak, bai Udalarenak bai beste administrazio batzuenak; taldeak, elkarteak eta herritarrak, oro har.

Emakumeen ahalduntzearen eta esparru guztietan parte-hartzearen zehar-arloa.

Mugimendu feministek arrakastaz zabaldu dute emakumeen ahalduntzearen ideia, eta hori gauzatu ahal izateko politika publikoak, gobernu-ekintzak, nazioarteko ekintzak, lege aldaketak eta aldaketa politikoak

bultzatzea lortu dute. Hala, ahalduntzea emakumeen agenda politikoaren parte da. Areago, gero eta emakume gehiago ari dira lanean jartzen mundu osoan, banaka edo beren erakunde eta sareen bitartez, ahalduntzea lortzeko.

Ahalduntze hitzak adierazten duen moduan, prozesu horretan emakume bakoitzak ahalmena, gaitasuna eta eskumena bereganatzen ditu. Hori garrantzitsua da, emakumeei eskumena ukatzen zaielako etengabe, eta munduak zailtasunak jartzen dizkielako gaitzeko, hau da, gaitasuna hartzeko, gai sentitu eta gai izateko, eta ahalmenez janzteko, hots, gauzak egiteko ahalmen edo boterea hartu eta bizitzan itzala izateko, baloratuak eta aintzat hartuak izateko.

Ahalduntzearen kultura, zehazki, emakume eta gizonen pentsamolde kolektiboen aldaketan eta erakunde sozial, zibil eta estatalen diskurtso eta jardunbideetan gauzatzen da. Emakumeek zilegi duten aurrerabideari eta garapenerako, ongizaterako, partaidetzarako eta beren eskubide eta askatasunen gozamenerako xedeei onespena eta babesa ematean datza aldaketa.

Emakumeen ahalduntzea sustatze aldera, partaidetza prozesuak sendotu eta aldatu behar dira, emakumeek errazago parte har dezaten aktiboki politika publikoak diseinatu, ezarri eta ebaluatzeko prozesuetan. Udal zerbitzuen eta emakume elkarten arteko harremanak sustatu behar dira, baita berdintasunaren aldeko politiketan parte hartzen duten gizarteko eragileekikoak ere.

Beharrezkoa da, bestalde, elkarten sarean berdintasuna areagotu eta sustatzea, bai antolaketaren eta funtzionamenduaren aldetik, baita genero ikuspegia haien programazioan eta jardueretan sartuz ere; eta gero eta gehiago izan daitezela berdintasunaren aldeko politikan zuzenean edo zeharka parte hartzen duten elkarteak.

-1. proiektua. Ahalduntze politiko.

EM1.1 helburua:

Administrazioaren barnean prozesu egokiak ugaritu eta indartzea, emakumeek parte hartu ahal izan dezaten politika publikoen definizioan, jarraipenean eta ebaluazioan.

EM1.1.1 ekintza.-Administrazioaren barnean emakumeek parte hartzeko bideak ezartzea.

EM1.1.2 ekintza.-Sentikortzea eta berariazko prestakuntza emakumeentzat, lidergo politiko, ekonomiko eta sozialaren gainean.

EM1.1.3 ekintza.-Emakumeen parte-hartze publikoaren inguruan gogoeta eta eztabaida egiteko foroak babestea.

EM1.1.4 ekintza.-Erakunde politiko, ekonomiko eta sozialak sentikortzea, ordezkartza publikoan eta pribatuan bi sexuen arteko parekotasuna ezartzeko premiaz.

Arlo arduradunak: Berdintasunerako Zerbitzua.

Arlo laguntzaileak: gainerako udal zerbitzuak.

-2. proiektua.-Ahalduntze soziala

EM2.1 helburua:

Emakumeen elkarten sarea handitu eta indartzea, baita berdintasunaren alde diharduena ere.

EM2.1.1 ekintza.-Emakume elkarteek beren artean eta bestelako elkarteekin batera sareak sor ditzaten sustatzea.

EM2.1.2 ekintza.-Informazio baliabideak eskaintzea, berdintasunaren alde lan egiten duten elkarteak sortzeko edo horrelako ekintzak garatzeko lehendik badiren elkarteetan.

EM2.1.3 ekintza.-Berdintasunaren alorrean lanean ari diren elkartei eskerrak emateko ekintzak garatzea.

EM2.1.4 ekintza.-Prestakuntza eta laguntza tekniko ematea udalerriko elkartei genero ikuspegia eransteko eta berdintasunaren aldeko lanaren berreskuratze historikoa egiteko.

Arlo arduradunak: Berdintasunerako Zerbitzua.

Arlo laguntzaileak: gainerako udal zerbitzuak, udalerriko talde eta elkarteak.

Planaren kudeaketa

Berdintasunaren aldeko plan hau prestatu ahala planteatu da hura kudeatzeko sistema, lotura sendoa dagoelako dokumentu honen egituraren eta pertsonak nahiz informazioa kudeatzeko balizko egituren artean. Hemen, ordea, ezaugarri nagusiak jaso dira, kontuan hartu behar baita plana ezarri bitartean aldaketak izan daitezkeela, erakundearen aldaketetara moldatu behar diren ondorioz. Berdintasunerako Zerbitzuak, beste agiri batean, plana ezartzeko urteroko plangintza berariazkoa izanen du.

Kudeaketa prozesuak.

Programazioak, jarraipenak eta ebaluazioak, ikus daitekeenez, berrelikatzen den ziklo etengabea osatzen dute: programazioan zehazturiko ekintzek urteko jarraipenaren xedea markatzen dute, jarraipenaren emaitzek ebaluazioa erabakitzen dute, eta ebaluazioaren arabera izanen dira hurrengo urteko programaziorako erabakiak.

Esparru horretan, prestakuntza, komunikazioa, koordinazioa eta parte-hartzea prozesu etengabeak dira, ezinbestekoak plana garatzeko eta lan-dinamikak ongi joateko. Koordinaziorako egitura egonkorra izendatu behar dira maila politikoan, maila teknikoan eta herritarren parte-hartzearen mailan.

Berdintasunerako plan hau behar bezala kudeatzeko behar diren egituren artean honakoak ditugu: berdintasunerako zerbitzu bat (plana ezartzeko beharrezkoak diren arlo guztiak koordinatu, eta planari dagozkion ekintza eta helburu guztiak garatu behar ditu), departamentu arteko lantalde bat (udal arloen arteko koordinazioa erraztu behar du plana ezartzeko, eta hobekuntzak, aldaketak eta plana malgutzeko irizpideak proposatu), batzorde bat (erantzukizun politikoa eta erabaki estrategikoak hartzeko ahalmena dituzten pertsonen osatua) eta aholku kontseilu bat (elkartean, taldeen, beste zerbitzu batzuen, emakumeen eta herritar guztien parte-hartzea erraztu behar du, proposamenak egin ditzaten, planaren ezarpenean lagundu eta planaren jarraipenean parte har dezaten).

Urteko programazioa.

Berdintasun Zerbitzuak ekintzarako agiri bat egiteko ardura izanen du. Bertan azalduko da zer nolako helburu eta ekintzak garatu behar diren urtean zehar, zein izanen diren arlo/departamentu arduradunak eta laguntzaileak, langile arduradunak, parte hartu beharreko gizarte eragileak, ekintzetarako epeak eta haietarako aurrekontua. Betiere, kontuan izanen da beste bi oinarrizko prozesurekin koordinatu behar dela:

-Udalaren aurrekontuak egiteko prozesuarekin, hortxe kalkulatuko baita plana urtean zehar ezartzeko aurrekontua,

-Eta urteko ebaluazio prozesuarekin, haren emaitzak erabakigarriak izanen direlako dokumentuaren diseinurako.

Eta Zerbitzu horrek jasoko ditu plana kudeatzeko egitura guztietatik egiten diren proposamenak.

Ekintzen programazioaren fitxa.

I. multzoa.-Ekintzaren kokapena eta deskripzioa.

Arloa:

Ardatza:

Programa:

Helburua:

II. multzoa.-Ekintzari lotutako oinarrizko elementuen deskripzioa.

Enuntziatua.

Deskripzioa: (ekintza deskribatu, oinarrizko alderdiak kontuan hartuz, hala nola fasekako garapena, kontuan hartu beharreko lan tresnak, haren xedea etab.)

Departamentu eta pertsona arduraduna/k: (departamentu edo zerbitzu arduraduna/k identifikatu, baita ekintza ezartzeko ardura duten pertsonen izenak ere)

Jarduketaren izaera: (adierazi hasiera eta amaiera badituen edo urte osoan zehar garatzen den; adierazi urtero garatzen den edo aurten bakarrik)

Amaieraduna/Etengabea Urtero/aurten

Ekintzaren hasierako hilabetea eta aurreikusten den iraupena:

Ekintza burutzeko kalkulatu den aurrekontua: (hartu kontuan hari lotuta egon litezkeen kostu guztiak eta adierazi zein arlotatik hartuko den aurrekontua).

Entitate laguntzaileak: (ekintza garatu ahal izateko beharrezkoa baldin bada koordinazioa Udalaren barneko entitateekin edo kanpokoekin -beste erakunde batzuk, elkarteak...-, adierazi zein diren)

Barnekoak Kanpokoak

Espero diren emaitzak: (kuantifikazioa, ekintza betetzeko -edo prozesurako- definitzen diren adierazleak arabera)

Beste datu interesgarri batzuk

EBALUAZIOA

Urteko ebaluazioa.

Plana ezartzeko programazioaren barneko jarduketa guztiei urtero egindako fitxak baloratzeko txostena.

Planaren urteroko ezarpen jarduketak ebaluatzeko fitxa

-Lehenbiziko zatia: jardueraren datu teknikoak.

- Jarduera:
- Pertsona arduradunak:
- Arloa:
- Hasierako eguna eta iraupena:
- Landutako proiektuaren xedea:
- Jardueraren xedea:
- Jardueraren edukiak:
- Erabilitako giza baliabideak:
- Erabilitako baliabide teknikoak:
- Erabilitako baliabide materialak:
- Aurrekontua:
- Lankidetzak beste arlo batzuekin:
- Lankidetzak beste entitate eta talde batzuekin:

-Bigarren zatia: jardueraren garapena.

- Deskripzioa:
- Parte-hartzaileak: Emakumezkoak Gizonezkoak
- Adina: Emakumezkoak Gizonezkoak
- Familia eta lana bateratzeko beharrak:
 - Adingabeak Emakumezkoak Gizonezkoak
 - Adinduek Emakumezkoak Gizonezkoak
- Gogobetetzeari buruzko galdera sorta:
 - Pertsona kopurua: Emakumezkoak Gizonezkoak
 - Adierazleak
 - Galderak
 - Emaizak, sexuaren arabera bereizita.

-Hirugarren zatia: jardueraren emaitzak.

- Gizarte irizpideak:
- Irizpide etikoak:
- Ingurumen irizpideak:

-Laugarren zatia: jarduketaren balorazioa.

- Lorpenak:
- Zailtasunak:
- Hobetzeko proposamenak:

Amaierako ebaluazioa

1. Ezarpenaren ebaluazioa:

Ezarpenaren ebaluazioak helburu nagusi hauek izanzen ditu: Udalak plana gauzatzeko egindako jarduketa guztiak aztertzea, burututako jarduketak agiri honetan jasotako helburuekin bat datozeela egiaztatzea, eta zenbateraino bete diren jakitea.

Ezarpenaren ebaluazioan erabili beharreko informazioa Antsoingo Udalak emandako dokumentaziotik jasoko da.

Udaleko arduradun politiko eta teknikoei eginen zaizkien elkarrizketetan lortzen den informazioa ere jasoko da.

2. Emaizten ebaluazioa:

Emaizten ebaluazioaren xedea da plana burutu bitartean gertatzen diren aldaketak erakustea, bai udal erakundearen barnekoak bai herritarren artekoak.

Elkarrizketak eginen zaizkie Udaleko politikari eta teknikariei, jakiteko zenbateraino ezagutzen dituzten planaren helburuak, eta plana bultzatzen duen arloarekin gainerako arloak nola koordinatzen diren. Elkarrizketak eginen zaizkie beste profesional talde batzuei ere, komunikabideetan, abokatutzan, osasun arloan...

3. Eraginaren ebaluazioa.

Hona ebaluazio honen xedeak: planak pertsonen arteko harremanetan duen eragina neurtzea, eta planaren ahuleziak azpimarratzea, berdintasunaren aldeko II. plana egiten denean ekintzak egokitzeko. Ebaluazioan kontsulta eginen zaie biztanleei, planak indarra hartu ondoren aukera-berdintasunari dagokionez emakumeen eta gizonen artean gertatutako aldaketak, aurrerapenak eta gabeziak agerian jartzeko.

Hiruretan kontuan hartu behar dira jarduketa guztien balorazioa eta I. planak betetako helburuen gradua.

1. ERANSKINA. AZTERLANAREN LABURPENA

"Udalerriko genero egituraren azterketa" (Antsoain 2008) izenburuko diagnostikoak xedetzat izan du Antsoaingo emakumeen eta gizonen gizarte egoeraren gaineko errealitatea islatzen duen erradiografia lortzea, hori beharrezko urratsa izan baita gure herrian aukera-berdintasunaren aldeko I. plan hau egin ahal izateko.

Azterlan honetan dauden datuak nahiko argigarriak dira eta, horiek ikusirik, zilegi da aipatu planean jasotako jarduketak etorkizunean Antsoainen ezartzea. Izan ere, emakumeen eta gizonen artean Nafarroa osoan ageri diren desberdintasun nagusiak gurean ere baditugu.

Emaitza horiez gainera, ordea, hortxe ditugu gure udalerraren berezitasunak, beharrak eta egoera sozialak, aukera-berdintasunaren arloko gure lehen jarduketetan lehentasunak markatu izan dituztenak.

Jarraian eskaintzen dizuegu, Antsoaingo erakunde eta herritarren artean zabaltzeko, azterlan horren emaitza jakingarrienen laburpena. Agiri osoa Berdintasunerako Zerbitzuan bertan kontsultatzen ahal da, edo eskatu egin daiteke igualdad@ansoain.es helbide elektronikoa.

-Antsoaingo biztanleria hazi egin da azken urteotan. Hala, 2007. urtearen amaieran 10.374 biztanle baziren herrian, %49,5 emakumezkoak.

-Nafarroako gainerako herrietakoa baino biztanleria gazteagoa dugu.

-Gaur egun bizilagunen %11,5 etorkinak dira eta horietatik %48,2 emakumezkoak.

-Bikoteak elkarrekin bizitzen hasteko adina atzeratu egin da, eta, ondorioz, lehen haurra izaten den adina ere bai.

-Bikote batek eta seme-alaba batek edo bik osatzen dute gaur egun familia mota nagusia.

-Ezkontza mota berriak (sexu bereko bikote ezkonduak) eta ezkontzaz kanpoko lotura berriak (ezkondu gabeko bikote egonkorak) agertu dira.

-Antsoaindar emakume gehienek behereneko edo goreneko hezkuntza maila dute, belaunaldien arteko diferentziak direla eta.

-Antsoaindar emakumeek, Nafarroa osokoek bezala, emakumezkoen ohiko ikasketak hautatzen segitzen dute, hala nola irakasletza, erizaintza edo lan harremanak. Ikasketa horietan guztietan emakumezkoak % 80tik gora dira eta gizonezkoak apenas %20.

-Gizonezkoek hartuta dituzten karreretan, hau da, ikasketa zientifiko-teknikoetan, esate baterako industria ingeniarietan, emakumezkoak %20 baino ez dira.

-Bereizketa horizontal bera ageri da lan merkaturako prestakuntzan ere (etengabeko prestakuntza eta lanerako prestakuntza).

-Antsoaingo emakumeen %59,3 dira aktiboak (gizonezko aktiboak, berriz, %80,6 dira), Nafarroako batez besteko portzentajea baino hamalau puntu gehiago.

-Haien okupazio tasa %50,2 da (gizonezkoena %74,7), eta emakumezko langabeen portzentajea, berriz, % 9,1 da (gizonezkoena %6).

-Ikasketa maila handieneko emakumeek jarduera eta okupazio tasa handiagoak dituzte.

-Gizonezko langabe bakoitzeko bi emakume daude lanik gabe. Kontratazio mota kaskarrenak ere emakumeek neurri handiagoan jasaten dituzte. Azpimarratzekoa da behin-behinekotasun handia (%32,3ko behin-behinekotasuna 2001ean, eta gizonezkoen artean %17,5).

-Besteren kontura lan egiten duten emakumeak %89,7 dira eta horietatik %57,3k dute kontratu finkoa. Gizonezkoen %67,3k dute kontratu finkoa.

- Antsoaindar emakumeen %3,5 eta gizonezkoen %4,5 dira enpresaburuak.
- Emakumeen %4,3 eta gizonen %9 dira langile autonomoak (beren karguko langilerik gabeak).
- Emakumezkoek gehienbat zerbitzuen sektorean egiten dute lana (%81,6) eta gizonezkoek industrian (%61,1).
- Emakumeen jarduera tasak etenik gabe egiten du behera 30 urteko adinetik aurrera, hain zuzen ere lehenbiziko haurra jaiotzen denetik, baina gizonezkoen artean egonkor segitzen du oso portzentaje handietan, 55 urteko adinera arte.
- Emakumeen %25 dira etxeko lanak besterik egiten ez dutenak, eta gizonezkoen artean portzentaje hori %0,4 baizik ez da.
- Erretiro kontuan gizonezkoak dira nagusi: gizonezkoen %10,1 eta emakumezkoen %2,4.
- Emakume pentsiodunen portzentajeak (%6,2) gairitu egiten du gizonezkoena (%2,3).
- Andraize zerbitzuaren erabilzaile antsoaindar gehienak emakumezkoak dira, %87,5 hain zuzen, eta gizonezkoak %12,5 bakarrik.
- Emakumeak nagusi dira gizarte edo hezkuntza arloko elkarteetan (adibidez, guraso elkarteetan), baina gutxiago parte hartzen dute kirol edo gastronomia erakundeetan.
- Emakumezko zinegotziak 4 ziren 2007an, hau da, udalkide guztien %30,8.
- Emakumeen parte-hartze politiko, sozial eta ekonomikoa erakundeen behereneko mailetan gauzatu ohi da, eta neurri txikiagoan erakundearen barneko erabakiak hartzen diren esparruetan.
- Genero indarkeria dela-eta azterlan honetan aztertu diren datuak kontuz interpretatu behar dira, ez dutelako agerian jartzen Antsoainen fenomeno horrek duen tamaina. Egia esateko, genero indarkeria hor dagoela, besterik ez dute islatzen. Oraindik ere, kasurik gehienetan ez da indarkeria mota horren berririk aditzera ematen eta, ondorioz, ez da estatistika ofizialetan jasotzen.

2. ARAUDIARI BURUZKO ERANSKINA

Aukera-berdintasunaren printzipioa pixkanaka barneratzen joan da XX. mendearen bigarren erdialdean nazioarteko erakundeetan, eta eskubide hori lortzeko lan egitea ahalbidetu diguten tresnak garatu dira.

Nazioarteko eremua.

Nazio Batuen 1945eko Gutuneko hitzaurrean aukera-berdintasuna lehentasunezko helburutzat aipatu zen, besteak beste, gizakien oinarrizko eskubideen barnean.

Geroztik NBEk antolatu dituen konferentzia eta goi bilera guztiek (Mexiko Hiria 1975, Kopenhage 1980, Nairobi 1985 eta Beijing 1995) plataforma gisa balio izan dute agiri, praktika eta gomendioetan emakumeen eskubide-berdintasunaren beharra berresteko, eta bide horretatik lortu da gobernuek konpromisoak har ditzaten genero bereizkeriarik ezaren alde.

Gainera, 1979an onetsi zen Emakumeen aurkako bereizkeria mota guztiak ezabatzearen aldeko Nazio Batuen Konbentzioa. Bertan argi eta garbi ezarri zen emakumeen giza eskubideen barnean sartu behar direla gizarte bat eratzen duten eskubide zibil, politiko, ekonomiko, sozial eta kultural guztiak.

Europako eremua.

Europar Batasunari dagokionez, Erroman 1957an sinatu zen Eraketa Itunaren testuan jada, estatu kideei berriaz agindu zitzairen lan berdina egiten duten emakumezko eta gizonezko langileei ordainsari berdina emateko printzipioa berma zezatela. Emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasunerako Erkidegoko lehen ekintza programa 1982an jarri zen abian.

Amsterdamgo Ituna 1997an sinatu zen. Bertan, lan arloan berdintasun neurriak ezartzeko arauzko oinarri berriaz gainera, zeharkakotasuna edo mainstreaming-a ere jaso zen tresna gisa, politika orokor guztietan sartu ahal izateko aukera-berdintasunaren gaia, genero ikuspegia ere deitua.

Aalborg hirian Aalborgeko Konferentzia egin zen 1994an, eta handik sortu zen Gutunean jarraibide politikoak ezarri ziren tokiko iraunkortasunaren bila lan egiteko. Hura ezartzeko lanean Europako tokiko gobernuei laguntza ematearren, 2004. urtean Aalborgeko Konpromisoak onetsi ziren, tartean 9. konpromisoa, aukera-berdintasunari eta justizia sozialari buruzkoa: "Gizarteratzea eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea", "Herritarren segurtasuna hobetzea" eta "Kalitate oneko eta gizartean integratutako bizi baldintzak eta bizilekua ziurtatzea".

Estatuko eremua.

Espainiako Estatuan, aldaketak askoz motelagoak izan dira. Europako iparraldeko herrialdeetan baino geroago gertatu zen industrializazio eta modernizazio prozesua, eta Francoren diktaduraren urteetan atzerakada izan zen, Espainiako II. Errepublikaren garaian emakumeen eskubideen arloan aurrera egin ondoren.

Demokrazia parlamentarioa eta 1978ko Konstituzioa iritsi zirenean, emakumeen eta gizonen arteko eskubide-berdintasunerako legezko oinarria sortu zen. Konstituzioaren 9.2 eta 14. artikuluek askatasuna eta eskubide-berdintasuna aldarrikatzen dituzte pertsona guztientzat, sexuak bereizi gabe, eta administrazio publikoei agintzen diete genero bereizkeriei amaiera emateko behar diren baliabideak jar ditzatela.

Bi sexuetako pertsonen arteko benetako berdintasuna zaindu eta sustatze aldera, 1983an Emakumeen Institutua sortu zen erakunde autonomo gisa. Gaur egun Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioari atxikita dago. Orain emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasunerako V. Plana aplikatzen ari da, 2008tik 2011ra bitartean gauzatu behar den plana, hain zuzen.

Bestalde, legegintza mailan, baditugu abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoa, Genero Indarkeriaren aurkako Babes Osorako Neurriei buruzkoa, eta hura garatzen duten arauak. Lege organiko horren helburua da emakumeen kontrako indarkeriari erantzun osoa ematea.

Eta, Estatuko esparru juridiko nagusi gisa, hor dugu Emakumeen eta Gizonen arteko Benetako Berdintasunerako Lege Organikoa, 2007koa. Espainiako Estatuan tratu-berdintasunaren printzipioa gauzatu eta emakumeen kontrako bereizkeria guztiak ezabatzea du xede lege horrek. Bizitza politiko, juridiko eta sozialaren arlo guztietarako zeharkako neurriak aurreikusten ditu. Gainera, lege horrek ezartzen du politika publikoen helburu eta jarduketa guztietan aukera-berdintasunaren printzipioa sartu behar dela, hainbat arlotan: osasuna, teknologia berriak eskuratzeko aukera, ondasun eta zerbitzuak eskuratzeko aukera, etxebizitza, kultura, kirola, arte sorkuntza eta garapenerako lankidetzak. Hauteskunde zerrendetan emakumeen eta gizonen arteko oreka finkatzen du. Emakumeen eta gizonen arteko oreka ezartzen du administrazio publikoetako arlo guztietan eta enpresetako administrazio kontseiluetan.

Foru eremua.

Foru Komunitatean, Nafarroako Emakumearen Institutua 1995ean hasi zen lanean. Haren eginkizunen artean nabarmentzekoa da berdintasunaren aldeko programak garatzen dituela Foru Gobernuaren jarduketan barnean, emakumeen aurkako bereizkeriak ezabatzeko neurriak bultzatzen dituela eta hezkuntza, lan, osasun, gizarte eta politika alorretan eragina izan den proiektuak egin daitezela sustatzen duela.

Nafarroan 2002ko uztailaren 2an onetsi zen 22/2002 Foru Legea, indarkeria sexistaren aurkako neurri integralak hartzeko. Izenak adierazten duen bezala, lege integrala da, hau da, indarkeriaren prebentzioa eta ezabaketa biltzen ditu esparru guztietatik.

2002ko azaroaren 28an onetsi zen 33/2002 Foru Legea, emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasuna sustatzeari buruzkoa. Haren helburuen artean hauek azpimarratu behar ditugu: Administrazioaren estamentu guztiak genero berdintasun kontuez sentikortzea eta Administrazioaren jarduketa guztietan genero ikuspegia sartzea.

Bestalde, Nafarroako Foru Komunitateko Emakumeen eta Gizonen arteko Aukera Berdintasunerako I. Plana, 2006-2010 aldikoa, jarduketa-esparru orientagarria da foru eta toki administrazioentzat, oraindik gure gizartean dirauten desberdintasunak ezabatzeko hartu duten konpromisoari eusteko. Haren helburuetako batzuen bitartez erronka hauek gainditu nahi dira: konpromiso politikoa areagotzea eta udalei egitura, baliabide tekniko eta aurrekontu berariazkoak ematea.

Hori guztia, tokiko esparrua berebiziko eszenatokia delako gizartean aldaketak eragiteko eta jendea arazoez ohartarazteko, zenbait arrazoi direla medio: lehenik, eguneroko bizitzako espazio hurbilena da, herritarren gertuenekoa eta, horrenbestez, errealitatea zuzenean ezagutzeko bide ematen duena.

Gainera, besarka daitekeen espazioa da, bide ematen baitu hasitako ekintzak egokiro mugatzeko, ebaluatzeko eta gehien komeni den moduan bideratzeko; eta azkenik, toki mailan, bada elkarte sare garrantzitsua; hamaika emakume-elkartek urteak daramatzate antolatuta, eta horietatik indar garrantzitsuak izan daitezke -edo dagoeneko badira- emakumeen eta gizonen arteko egiazko berdintasuna bultzatzeko estrategien garapenerako.

Toki eremua.

Toki eremuan, Udalerri eta Probintzien Federazioaren (FEMP) 2003ko azaroko VIII. Batzar Nagusiaren ebazpenek tratu eta aukera berdintasuna jasotzen dute. Funtsezko printzipioak dira eta Toki Administrazioaren lehentasunezko eginkizun. Hori horrela onartua izan da, erakundearen barnean Emakumeen eta Berdintasunaren Batzordea sortu zenez geroztik.

Udalerri eta Probintzien Federazioarentzat, tokiko eremua da xede hauek dituzten planak eta programak gauzatzeko espazioa: pertsonen arteko tratua eta aukera berdintasunaren defentsa, generoaren inguruko indarkeriaren, bereizkeriaren eta gizarte bazterketaren aurkako borroka, hiri espazioak gaur egungo emakumeen beharren arabera eraikitzea.

Politikan eta gizartearen parte hartzeko bide berriak ere ireki dira adin eta jatorri guztietako emakumeentzat. Hori guztia, inplikaturako administrazio eta sektoreen arteko ezinbesteko koordinazioaren eta lankidetzaren bitartez.

Udalerri eta Probintzien Federazioaren asmoa da toki korporazioentzat eskumenen egikaritzak eskatzen jarraitzea, diru eta giza baliabideen hornidurarekin batera, gizarte berdinezaleago baten alde, jakin badakielako faktore hori giltzarri dela XXI. mendean garapena eta bakea lortzeko.

Horretarako, badu tokiko bizitzan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna ezartzeko Europako Gutuna, Europako Udalerri eta Eskualdeen Kontseiluak egina Europako Batzordearen laguntzarekin.

Erakunde horiek guztiak, aipaturako goi bilerak, itunak eta akordioak lagungarriak izan dira berdintasunarekin zerikusia duten lorpenak finkatzeko, bereizkeriaren aurkako borrokarako mekanismoak sortzeko eta eskubide horren alde lan egiten jarraitzeko helburu eta planteamenduak argi mantentzeko.

Antsoaingo Udalak, aurrean aipaturako erakunde guztiekin eta haiek sortutako araudiarekin bat etorriz, eta, halaber, gure inguruko garapen iraunkorarekin dugun konpromisoari eutsiz, aukera-berdintasunaren aldeko I. plan hau egin eta onetsi du emakumeen eta gizonen arteko berdintasun benetakoa eta eraginkorra gauzatzeko, uste osoa baitu giza eskubide hau gure herrian iraunkortasuna lortzeko zutabe funtsezko eta ezinbestekoa dela.

"Gauza guztiak ezinezkoak dira hala diruditen bitartean". (Concepción Arenal, idazle eta soziologoa).

Iragarkiaren kodea: L1005285